



Ibarran, 2.021eko otsailaren 17an

ERRONKA! LIBARRATIOAN 100 EMAKUME PARTE HARTZAILE BAIETZ!

Kaixo laguna,

Deabruak Kalera Ibarrako Asanblada Feministatik jartzen gara zurekin harremanetan egitasmo baten berri emateko.

Jakingo duzun moduan, martxoak 8aren bueltan, **Lilatoia** ospatzen da (**emakumeentzat soilik Donostian antolatzen den kross herritarra**)

Egoera dela eta, aurten **Lilatoia norbanako bakoitzak bakarka** egitea proposatu dute Lilatoiko antolakuntzatik. Parte hartzen duen emakume bakoitzak 5km egingo ditu nahi dituen tokian eta nahi duenean martxoaren 5etik 8ra, biak barne. Aplikazio baten bitartez, bere 5km-ak erregistratuak geratuko dira, eta horrela, partehartzaile gisa hartuko da kontuan.

Iaz Ibarretik 50 emakumek parte hartu zuten, eta proposamen honi tiraka, **LIBARRATIOA** antolatu dugu. Lilatoieko aplikazioaren argibide lagungarriak eta **bi ibilbide sortu ditugu**, 5km-tako bide moreak. **Eta erronka bat dugu: aurten 100 baietz!**

Prestatutako ibilbideetako bat herri barrutik da, irisgarria eta erraz egitekoa. Bai oinez, baita korrika ere. Bestea berriz menditik barrena, herritik atera eta aldapan 5km-ak egin nahi dituenarentzat prestatua. Ibilbideen nondik norakoak eta parte hartzeko egin beharrekoak prestatua dugun estekan izena emanda jasoko ditu interesa agertzen duen orok.

Bestalde, Libarratioeko parte hartzaile guztien artean **Ibarrako Merkatarien eskutik 25€tako 6 erosketa txartel zozketatuko ditugu**. Zozketan parte hartzeko, ondorengo bi pausuak jarraitu beharko dira:

- 1- **Aurretik aipatu dugun estekan izena eman eta parte hartu.**
- 2- **Argazki bat atera ibilbidea egiten eta Instagramera igo @deabruakaf gure profila aipatuaz argitalpenean (parte hartzaileak ez badu Instragamik, argazkia emailaz [deabruakkalera@gmail.com-era](mailto:deabruakkalera@gmail.com) bidaltzarekin nahikoa da)**

Jaso duzun informazio hau, ahal duzun neurrian, **Ibarrarren artean** zabaltzea eskertuko genizuke, eta baita zure **inguruko emakumeen parte hartzea sustatzea ere**. Eskerrik asko!

DEABRUAK KALERA IBARRAKO ASANBLADA FEMINISTA



*Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!
Resistimos para vivir, marchamos para transformar*